

Bizkaierazko aditz laguntzailearen adizkitegia

Txomin Solabarrieta Etxaburu

txomin_ond@yahoo.es

Abstract

The author provides Biscayan auxiliary verbs in tables and in a list in alphabetical order, with citations to the specific sources.

Laburpena

Artikulu honetan Bizkaierazko aditz laguntzaileen bilduma, tauletan eta zerrendan ordena alfabetikoan, eskaintzen da, hainbat iturri zehatz-mehatz aipatuta.

Keywords: aditz morfologia, aditz paradigmak, bizkaiera.

Hitz gakoak: verbal morphology, verbal paradigms, Biscayan Basque.

1. Sarrera Gisa

BIZKAIERAZKO ADITZ LAGUNTZAILEAREN ADIZKITEGIA lanari buruzko zenbait gorabehera beronen AGURRA / SARRERA atalean azaldu nituen. Ikuspuntu nagusienak bi dira: bata, bizkaierazko euskal adizkiekiko nire *itsasketa* eta *itsasaldia*. Eta bide batez, adizkiok eurok ere ibili duten mota guztietako olatu arteko zirri-zarra begibistaraztea. Bestea, nire ikaskideei niotsenez, lan honek gaur egun balio handirik ez eduki arren, praktikoa gerta dakidake. Hau da, inoiz horren premian izanez gero, zazpi edo zortzi liburutan zehar, apunteak aparte, ibili gabe, orain liburutxo bakar batez baliatzeko moduan aurkitzen dudalako neure burua.

Nire ikaskideei igorritako gabonsariko aipatu *Agurra-Sarrera* ahal denik laburrena ateratzea nahi nuen. Eta hainbat zertzelada eta ñabardura sartu gabe utzi nituen. Kontuan hartu, Gasteizko Seminarioan, euskarari dagokionez, eta berau ere nire bosgarren urtetik aurrera uste dut, ikasturtearen azken egunean goizeko meza ostean “Agur, Jesusen Ama” baino ezagutu ez duten ikaskideei igorritako lana dela berau. Horregatik erabili ditut *indikatiboa*, *subjuntiboa*, *imperatiboa* eta ez, esaterako, *egite era*, *gurarizkoa*, ez eta *agintera* edo *agintaldia* ere. Juan Mari Lekuona eta besteren bat edo kenduta, ez dakit euskaraz subjuntiboa dagoenik ere dakiten! Tristeia baina egia!

Jakina, “laguntzailearen adizkitegia” gabe egokiago litzateke “laguntzaileen” esatea, pluralean, hor agertzen diren sinopsiak, paradigmak lau aditz laguntzaileenak baitira: *izan*, **edin*, **edun* (ukan) eta *egin*.

Aditzen erak edo moduak izendatzeko orduan, gaur egungo nomenklatura unibertsitarioagoa-edo erabiltzea

otu zitzaidan. Era berri honen aipamena sartu ahal izateko, halako perpaus orokor bat ere egin nuen, baina ez nuen berau tartekatzeko zirrikiturik ere aurkitu. Eta gutxiago, aipamenaz batera horren nolabaiteko azalpena agertzeko tarterik. Dena dela, gogoan izan *nortzuei* igorritakoa den lan hau. Hala ere sinopsi hauetako egileek darabilten izendapenei ere leku berezia eman diet, lau (63-66) orrialdetan.

Esaterako, lan honetan eta gure artean oso gora handikoa deritzodan *dautsat-deutsat* formen aipamenari ezin gehitu izan nion Eguzkiren lehenengo liburukoa. ADIZTEGIAN, *nor-nori-nork* formetan, jakina, DAU formakoak datoz. Baina, 54. orrialdean EU kontua aipatuaz gainera, 56-57. orrialdeetako 15 adibideetatik 14 adibidetan DEU forma agertzen da. Egizu puntu hau, *h*-rekin batera, eskola temati bat izan dela oraintsu arte. Eta *Agurra-Sarrera* horretan *deutsegun ezker* / *eskatu deiogun Jaunari...* aipamenean *parkatzen* hitza sartzeko lekuri ere ez nuela izan. Paragrafo horren amaieran beste hau sartzeko gogoaz geratu nintzen, hau da: ‘baina kaltea egina dago’. Esan nahi da: liturgian (Meza santua) herriko hizkuntza erabiltzeko aukera baimendu zutenean, “Aita gurea” otoitzaren euskarapenean *parkatzen dautsegun ezker* jarri zuten. Eta *herri otoitzetan zuzentzaileak eskatu daiogun Jaunari* aldarrikatu ohi zuen. “Gure Aita” gaur egun bizpahiru doinu abesten da. Eta doinu berria irakatsiaz eta ikasiaz batera gaur egun Meza Liburuan datorren *parkatzen deutsegun* forma irakatsi eta ikasten dute. Baina luzaro gabe, jendea hasiera batean kantatuaz-kantatuaz erraietaraino gorpuztutako *dautsegun ezker* delakora *pasatzen* da. Nahiz eta liburu, orri eta abar ofizialetan NORI agertzen denean DE forma erabili, jendea DA formara ohiagotu-edo egin dute. Horregatik nire ‘baina kaltea egina dago’ hori. Beste *eskatu deiogun Jaunari* forma zuzentzaileak baino esaten ez

duenez, ba... *subjuntiboan* ere NORI agertzerakoan DE forma entzuten da. Nik ez dut ulertzen, nola ez zuten hasiera-hasieratik forma hori sartu, batez ere hori egitean Akesolo tarteko (edo bakarra?) zela jakinda. Hori eta "Aita gurea...", oraingo "Gure Aita" barik. Konprenitu, konprenitzen dut, baina ez dut ulertzen.

Honenbeste jira-bira DAU-DEU puntu honi? Ba, bai. Hara, behin batean UEUn, jolas-orduan autuan geniharduela, eta aipatzeko moduko motibo handirik, behintzat, ez zegoela, solaskide batek, neuri adi-adi, purrustada hau bota zuen: begiratzea baino ez dago nortzuek eta non darabilten *dautsat* forma! Nik neure bostean: isilik egotearren beste behin ere galtzea suertatuko zait, baina... hago mutu! Nik, behintzat, ordurako *deutsa* eta *deiogun*-eta formak nerabiltzan. Eta Gotzaindegian Carmelo Echenagusari entzundako honezaz gogoratu nintzen: bai, orain arte *dautsat*-eta idatzi izan ditugu, baina oso ondo jantzitako gramatikariak etorri dira esaten datiboa sartzen denean *dautsat* barik *deutsat* erabili behar dela eta geuk ere *deutsat*-eta idazten hasi beharko dugu. Niri dagokidanez puntu honetan non aurkitzen nintzen aurreko sinopsietara begiratzea baino ez dago. Baina orduantxe ohartu nintzen puntu hau norainokoa zen *eskola kontua*. Horregatik da goian egiten dudana Eguzkiri buruzko aipamena. Eta egileak berak indikatiboan *deutsat*, *deutsagu* (DE forma) erabili eta subjuntiboan *daiodan*, *daiogun* (DA forma) erabiltzea ere zeharo esanguratsua dela deritzot.

Eta honegatik guztiagatik tartekatu nituen LABAYRUnekoak. LABAYRU HIZTEGIA eskuratu nuenean eta hangoak ikusi Eguzki, Irazola, Pitarke eta Labayru Hiztegiko zenbait paradigma sinopsi eran jartzea otu zitzaidan, euron arteko desberdintasunez-eta begi kolpe batez ohartzeko. Ikus hor zenbait adizkiei lehenasuna emateko joko *xelebrea*. Ordurarteko atzera-aurrerak Pitarkeren (kontuz!, plural eta guztikoaren) araberrako adizkien erresuluaian bare-baretan amaitu zirelako ustea ustel atera zait. Eta hemendik 46. orrialdeko nire ateraldia!

Adizkion ordena alfabetikoa eta adizki sinkretikoen zerrenda ere sartu egin nituen, informatika bidez erraz lor daitezkeelako eurok.

2. Agurra - Sarrera

1953. urtean abade egindako eta euron beste ikaskide edo kurtsozide enparauei GABON ZORI ON eta URTE BERRI ON.

Badakit aurtengo gabonsari hau ez duzuen probetxu handirako izango. Baina, gai honetan neu zein itsasotan ibili izan naizen eskumapatzat-edo balioko duela uste dut. Begiratu batean, behintzat, itsaso baretan zehar baino oso ekaizsuetan zehar ibili izan naizela dirudi. Eta hala gertatuko zitzaidan itsasketa berean itsaso

hauek guztiak zeharkatu izan banitu. Baina ez da horrela izan. Aldian aldiko itsasaldi kontua izan da. Iazko Gabonetakoan aipatu nizuen Jean Marie Deharce *Iratzeder* eta Joani Batista Lertxundi Belokeko beneditarrek 1954. urtean eraturako *Pasionea* 1958an antzeztu genuela Gatikan. Eutiki Zulueta, orduan Laukinzko parrokoa, bizkaieraz jarri eta nik letra horri musika egokituz. Orduantxe, elkarlanean geniharduela, bizkaierazko adizkitegiaren berri aipatu zidan. Auskalo orduan niri hori argitzean zer nomenklatura erabiliko zuen berak! *Aditz*, *adizki*, *adizkitegi* edota *adizkien* paradigma... hitzak, bada, gero eta gero eta gero ikasiak baititut, nahiz eta, esaterako, *aditz* hitza 1891n eta *adizki* 1927an erabiliak izan. Ba, horiek eskuratzeko gogoia biztu zitzaidan eta utziko bazenizkit neuk ere eskuz kopiatuko nituzke, esan nion. Eta utzi ere utzi zitzaidan aipatu paradigmatok. Baina eurok kopiatzen hasteko betarik ez nuen izan soldadutzara joan beharra etorri zitzaidalako. Baina, halako batean, gutxien uste nuen ezustekoa hartu nuen. Josebe Garmendia Fanok, etxeko seinak, bere eskuz kopiatuta, Eutikik aitaturako paradigmatok postaz igorri zitzaidan. Eta nik, hantxe, San Fernandoko San Carlos kuartelean paradigmatok, aditzen eraz era garaturako bizkaierazko adizkiak buruz ikasi nituen, eurretari asko, jakina, etxekoak nituen eta beste batzuk ezagunak izan arren erabiltzen ez nituenak. Eutikik adizki hauek Azkueren *Morfologia Vascatik* hartuak eta aukeratuak zituen. Harrezkero bizkaierazko adizkien gorabeherak liburu hauetan ikusi izan ditut:

Joseba Intxausti: "*EUSKAL-ADITZA, Gipuzko-Bizkaierak, (paradigmas verbales y método racional para su estudio), 1960*". Aditzen era (modu) bakoitzari dagokion CUADRO ANALÍTICO delakoez eta paradigmatok

hornituta.. Ohartu nintzen hemengoan eta nire paradigmatok zenbait adizkiren arteko desberdintasunez, eta, hori bai, batzuk handi xamarrekoak! Eta, bide batez, gipuzkerazko adizkietara ere ohitu nintzen. Geroago P. Plácido Mugicaren '*Conjugación guipuzcoana del verbo auxiliar...*' eskuratu nuen. Biotako adizki guztiak banan-banan erkatu nituen. Gogoan dut Mugica jaunari gutun bat idatzi niola. Auskalo zer esango nion nik! Baina, hara!, erantzun egin zidan; eta gogoan dut harengandiko erantzuna hartzea gustatu egin zitzaidalako... Artean, "Umandi"ren GRAMATICA VASCA goitik behera pasatu nuen. **Antonio Karmelo Urrestarazu** ezizenez "Umandi" zen. Arabako Araian jaioa. 17 urterekin euskara ikasi eta euskarako irakasle izan zen Gasteizen. Liburu honen bidez, besteak beste, eta *sensus sine sensu*, gero *euskal deklinabidea* dela jakingo nuen zeraz ohitu nintzen. Eta dagoeneko hasia nintzen behin betiko iritziei edo usteei loturik ez jardutea. Nire burua eta gogoia zer irakatsi dutenei zabal-zabalik edukitzea. Eta jarrera hau handik urte batzuetara oraindik nabarmenago gertatu zen nigan. Urtetan, Azkuerean

niretzat ‘ebanjelioa’ zen. Apurka-apurka ‘ebanjelio-balio’ hori erdi kolokan hasi zitzaidan. Eta handik geroago Sebero Altuberen “*Observaciones al Tratado de “Morfología vasca” de DON R. M. DE AZKUE (1934)*” laneko zerak irakurriz gero, ‘ebanjelio-balio’ hura ura hartzen hasi zitzaidan. Altube jaunaren aipatutako lan hau nik neuk 1973an-edo eskuratu nuen. Hala eta guztiz ere, eta gaur-gaur ere, Azkueren *Morfología* dut, jakina, nire kontsulta liburu. Hara jotzen dut ea Azkuek zer dioen jakitera; ez diot zer inoen, baizik eta zer dioen baino. Tira! Hau, adizkion aurkezpenari dagokionez, parentesi bat izan da, aukeran, behar bada, luzeegia. Baina zer irakatsi dutenen aurrean jarrera irekia izatea mesedegarri izan zait Labayru Ikastaro-Derioko, Hizkuntza Eskolako, UEUko (Udako Euskal Unibertsitateko) irakasleengandik eta beste enparauengandik hainbat irakatsi hartzeko.

Pedro Pujana: “*EUSKAL ADITZA (Bizkaiera), flexiones del verbo vasco vizcaino, 1970*”. Pujana jauna, arabar idazlea; jaioterria Oleta, Aramaio. Hauxe erabili nuen urtetan, nahiz eta bertako zenbait adizki nire begiko ez izan. Adizki gorputz bat erabili beharra zegoen

eta berau izan nuen nire vademecuma. Nahiz eta nahiko ohitua nengoen ordurako NOR, NORI, NORK hizki eta abarrez, zeharo baliagarri eta atsegingarri egin zitzaizkidan hamaika orritan adierazitako ALGUNAS NOCIONES ELEMENTALES SOBRE EL VERBO VASCO delako xehetasunak. Ez zituen sartu *hikako* adizkirik. Labayru Udako Euskal Ikastaro (Derio) batean adizki horiei buruzko zenbait eskola eman zizkigun berak.

Jesus Eguzkitza (Eguzki): “*ADITZA I-II, Udako Euskal Ikastaroa-Derio, 1977*”. [Sinopsiotan, beroni dagokionez, 159-171 orrialdeetako adizkitegitik (berak *adiztegia* hitza darabil) jasotako adizkiak dira. Orrialde hauetatik kanpoko zenbaki-orrialdeen aipamenak beronen bigarren liburuari dagozkio]. Aditzen era bakoitzari dagokion koadro edo eskema eta guzti. Berak koadroei *korapilloa* deritze. Eta ‘korapillo’ko adizkiaren atal morfologikoak analizatzeari *urkulketa*. Ez datoz *hikako* formarik.

José María Irazola: “*ADITZA III-IV, Aditz Konparatua, Udako Euskal Ikastaroa-Derio, 1978*”. *Hikako* forma eta guzti. Honek eskemei dagokionez *urkulketa* hitza baino ez darabil. Hemen beronek idatzitako “*Euskal Aditz Laguntzailea, konparatua: bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz, ziberotarrez*” delako lanaren aparteko aipamena egin behar dut. Nik daukadan aleak ez du datarik jartzen. Ezkerreko orrialdeetan lau euskalkietako koadroak datoz, eskuz eginak, eta pareko eskuineko orrialdeetan eskema hauei dagozkien paradigmatik, euskalki bakoitzeko adizkiez horniturik, bata bestearen azpian eta hurrenez hurren,

idazmakinez eginik. Eta bai koadroak eta bai paradigmatik dagozkien eta gehiagoko oharrez eta aipamenez jantzirik. Eta nago harrezkero antzeko zerbait egiten ahalegindu zirenek hau ezagutu izan balute, erraz-erraz eta inor enbolika gabe gauzatu ahal izango zuketela euren lana.

Gero hau agertu zen: “*BIZKAIERAREN IDATZIZKO ARAUAK, Euskara Zerbitzua, Hezkuntza eta Kultura Saila, Hizkuntza Prestakuntza, 1983*”. Orduan pentsatu nuen: titulu hauekin guztiekin... hau izango da BIZKAIERA BATUA. Eta honexeri lotu nintzaion neure zertxoak egitean, ordurarte nigan gorputzuta zeuden zenbait forma alboratuz.. Ustez, behintzat, gorputz bereko forma guztiak eta bakoitza erabiltzea baita egokiena. Egia esanda, subjuntibozko orainaldiko ZER-NORI-NORK komunatadurako bigarren formak ez nituen aintzakotzat ere hartu. Baina ohartu nintzen denek ez zietela hemekoei jarraitzen, behar bada *prestatzailearen azalpenaren azken oharra* lagun zutela. Baina dirudienez, han aipatu *bizitzari dagokion erabileraren argitasuna* liburu hau argitaratu zen garaietako berbera dugu gaur ere.

Ez datoz *hikako* adizki pluralak oso-osorik idatzita. Azkue izan ezik (gehientsuetan behintzat), besteok, bizkaierazko “Z” pluralgilea adizki singularrari marratxoa eta “z” edota barra zehar eta “z” erantziz azaltzen dute, zenbait adierazpen orokor gehituz. Baina *hikako* formak etxeko ez ditugunoi zail egiten zaigu adizkiok osatzen. Ohar hau jarri zuen Txomin Agirrek bere KRESALA liburuaren hitzaurrean: “...Danok dakigu iru eratako izketea egiten deusagula euskaldunok alkarri: *i*-gaz esaten dana lenengoa, *zu*-gaz esaten dana bigarrena ta irugarrena *berori*-gazkoa. Lenengoaren zalea naz, zarrena dalako, ta opa dot bere bizitza luzea; baña antziña il zan Arranondon da orregatik ezta emen agertuko izketa zar ori”. Berak, jakin baekien, ziur! Bere aita Mutrikoko San Jerolimo auzoko Txartxa baserrikoa baitzen. Baina nire aitak, haren lehengusoa izanarren, ez zekien hizketa era hori, Agirre berak inoen arrazoiagatik, eta niregana ere ez zen heldu. Horregatik Eguzkiri igorri nion adizki hauen zerrenda bat, euron pluralak oso-osorik, mesedez, egin ziezazkidan, honekin batera liburu honetan akatsak izan zitezkeen hitzen beste zerrenda bat gehituz. Eta Eguzkik erantzun egin zidan, nik igorritako zerrendakoak bere eskuz propio beteta. Uste dut eskertu ere eskertu niola mesede hau.

Eguzki: “*ADITZA, Bizkaierazko Erabileran, Eskola apunteak 2, Labayru Ikastegia, 1984*”. Ez datoz aditzen era guztiak. Deigarriak eta interesgarriak dira beronen aurreko liburuaren eta oraingo honen arteko desberdintasunak. *Korapilloak* eta adizkitegiak ere *hikako* formez horniturik datoz. Eta hainbat *aditz trinkoren* adizkiak dakaz.

José María Pitarke: “*ADITZ IV: ADITZ KONPARATUA, Eskola apunteak 4 Labayru Ikastegia,*

1984". Ez datoz aditzen era guztiak. Koadroak badatoz baina ez adizkitegirik. Berak dioenez "Datorren urterako irakas-liburu sakonago eta zuzenagoa burutzeko asmoz".

José María Pitarke: "ADITZ KONPARATUA, Eskola apunteak 4, Labayru Ikastegia, 1985". Bai, benetan sakona eta aipagarria! Eta *hika* formako adizki pluralak oso-osorik jartzea ere eskertzekoa da. Egia esan, litezkeen adizki plural guztiak datoz oso-osorik idatzita.

Inoiz gogoratu izan naiz Amatiñoren harako zeraz: Bizkaierari dagoeneko pasau zaio batua egiteko denbora.

Baina zerbait batu dela dirudi, esaterako *deutsegun ezkerro / eskatu deiogun Jaunari...*, nahiz eta zail izango den jendeak kantatuaz-kantatuaz erraietaraino gorpuztutako *dautsegun ezkerro* delakoa bertan behera uztea...

Niri dagokidanez, ikus 46. orrialdeko purrustada.

Agur t'erdi. Gabonmin, Txomin.

Hona hemen adibide gisa INDIKATIBO orainaldiko koadroak eta eskuineko orrialdean hemendik gara daitezkeen (Pitarkeren arabera) adizkiez hornituriko paradigmak.

NOR-NORI

Nor	A.ez.	Erroa	Nori	Pl.	Pl.
N	A	TXA	T		
H	A	TXA	K/N(a)		
-	-	JA	KO		
G	A	TXA	KU	z	
Z	A	TXA	TZU	z	
Z	A	TXA	TZUE	z	E
-	-	JA	KE	z	

T+Z = TaZ: zatxataz... /// K+Z = ZaK: gatxazazak. /// Na+Z = ZaN: gatxazan(a)

ZER- NORK

Zer	A.ez.	Erroa	Pl.	Nork	Pl.
				T	
				K/N(a)	
				-	
				GU	
				ZU	
				E ZUE	
				E	

Z

ZER-NORK

Zer	Pl.	Erroa	Nork
			T
			K/N
			-
			GU
			ZU
			ZUE
			E

D I T U

NOR-NORK

Nor	A.ez.	Pl.	Erroa	Pl.	Nork
N	A		U		T
H	A		U		K/N
-	-				-
G	A	IT	U		GU
Z	A	IT	U		ZU
Z	A	IT	U	E	ZUE
-	-				E

A+U = AU edo O: dau / dot, dok, don, dogu, dozu, dozue.

T+Z = DaZ: dodaz

K+Z = ZaK: dozak // N(a)+Z = ZaN(a): dozana.

U+E = BE: dabe.

A+U = AU edo O: nau, haut, hau, haugu / nok, nozu, nozue.

U+E = BE: nabe, habe

ZER eta NOR-NORK (goiko 3 eskemak koadro berean sartuta)

Nor	A.ez.	Pl.	Erroa	Pl.	Nork	Pl.
N	A		U		T	
H	A		U		K/N(a)	
D	A		U		-	
G	A	IT	U		GU	Z
Z	A	IT	U		ZU	Z
Z	A	IT	U	E	ZUE	Z
D	A	IT	U		E	Z

ZER-NORI-NORK

Nor	A.ez.	Erroa	Nori	Nork	Pl.
			STa	T/Da	Z
			A/N(a)	K/N(a)	Z
D	E	U	TSO-A	-	Z
			SKU	GU	Z
			TSU	ZU	Z
			TSUE	ZUE	Z
			TSE	E	Z

Pluralgilea "IT" eta "Z", baina ez biak batera adizki berean.

A+U = AU edo O: nau, dau / nozu, dot, dok, dogu, gozuz, gozueez...

K+Z = ZaK: dozak, gozak // N(a)+Z = ZaN(a): dozana, gozana.

T+Z = DaZ: dodaz.

A+U+E = ABE: nabe, habe, dabe...

A+IT = AIT edo IT: gaitu, gaituzu, zaitu, zaitue / ditu, ditugu...

A+E = E: deue, deuez

K+Z = ZaK: deustazak, // N(a)+Z = ZaN(a): deustazan(a)

TSO+E = TSIE: deutsie, deutsiez

TSE+E = TSIEE: deutsiee, deutsieez

NOR-NORI

NOR		NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
naz	NI		natxak / natxan(a)	natxako		natxatzu	natxatzue	natxake
haz	HI	hatxat		hatxako	hatxaku			hatxake
da	HURA	jat	jak / jan(a)	jako	jaku	jatzu	jatzue	jake
gara	GU		gatxazak / gatxazan(a)	gatxakoz		gatxatzuz	gatxatzuez	gatxakez
zara	ZU	zatxataz		zatxakoz	zatxakuz			zatxakez
zarie	ZUEK	zatxataze		zatxakoze	zatxakuze			zatxakeze
dira	HAIEK	jataz	jazak / jazan(a)	jakoz	jakuz	jatzuz	jatzuez	jakez

NOR-NORK

	NI	HI	HURA	GU		ZU	ZUEK	HAIEK	
NIK		haut	dot			(zaudaz) zaitut	(zauedaz) zaituet	dodaz	ditut
HIK	nok / non(a)		dok / don(a)	gozak / gozana	gaituk / gaitun			dozak / dozana	dituk / ditun
HARK	nau	hau	dau	(gauz)	gaitu	(zauz) zaitu	(zauez) zaitue	dauz	ditu
GUK		haugu	dogu			(zauguz) zaitugu	(zaueguz) zaituegu	doguz	ditugu
ZUK	nozu		dozu	(gauzuz) gozuz	gaituzu			dozuz	dituzu
ZUEK	nozue		dozue	(gauzuez) gozuez	gaituzue			dozuez	dituzue
HAIEK	nabe	habe	dabe	(gauzez)	gaitue	(zauez) zaitue	(zaueez) zaituee	dabez	ditue

Parentesi artekoak logikoak direla baina Pitarkek ez dituela sartzen-edo esan nahi du.

Las flexiones entre paréntesis quiere decir que, aunque lógicas, Pitarke no las incluye, o algo así.

NOR-NORI-NORK

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK		deuat, deudad deunat, deunadaz	deutsat, deutsadaz		deutsut, deutsudaz	deutsuet, deutsuedaz	deutset, deutsedaz
HIK	deustak, deustazak deustan(a), deustazan(a)		deutsak, deustazak deutsan(a), deustazan(a)	deuskuk, deuskuzak deuskun(a), deuskuzan(a)			deutsek, deustezak deutsen(a), deustezan(a)
HARK	deust, deustaz	deua, deuz deuna, deunaz	deutso, deutsoz	deusku, deuskuz	deutsu, deustuz	deutsue, deustuez	deutse, deutsez
GUK	deustazu, deustazuz	deuagu, deuaguz deunagu, deunaguz	deutsagu, deustaguz		deutsugu, deustuguz	deutsuegu, deustueguz	deutsegu, deutseguz
ZUK	deustazu, deustazuz		deustazu, deustazuz	deuskuzu, deuskuzuz			deutsezu, deutsezuz
ZUEK	deustazue, deustazuez		deustazue, deustazuez	deuskuzue, deuskuzuez			deutsezue, deutsezuez
HAIEK	deuste, deustez	deue, deuez deune, deunez	deutsie, deustiez	deuskue, deuskuez	deutsue, deustuez	deutsuee, deustueez	deutsiee, deustieez

I Sinopsia

INDIKATIBOA: NOR: oraina

	Azkue: 629. or.	J. Intxausti: 94. or.	P. Pujana: 24. or.	Eguzki: 159 / 52. /or.		Irazola: 3. or.	BIA: 23. or	Pitarke: 181. or.
ni	naiz, naix, naz	naz naiz	naz	naz	naz	naz	naz	naz
hi	aiz, aix, az	az aiz			haz	az	haz	haz
ha	da	da	da	da	da	da	da	da
gu	gara, garaz	gara	gara	gara	gara	gara	gara	gara
zu	zara, zaraz	zara	zara	zara	zara	zara	zara	zara
zuek	zaree, zarie	zaree zarie	zaree	zaree	zarie	zar(a)ee	zarie	zarie
haiek	dira, dire, diraz, direz		dira	dira	dira	dira	dira	dira

II. Sinopsia

INDIKATIBOA: NOR: lehena

	Azkue: 640. or.	J. Intxausti: 95. or.	P. Pujana: 36 or.	Eguzki: 163. or. /// 89. or.		Irazola: 3. or.	BIA: 44. or	Pitarke: 191. or.
ni	nintzan, nitzan, nintzen, nitzen	nintzan	nintzan	nintzan	id.	nintzan	nintzan	nintzan
hi	intzan, itzan, intzen, itzen	intzan			hintzan	intzan	hintzan	hintzan
ha	zan	zan	zan	zan	id.	zan	zan	zan
gu	gintzazan, gintzan, ginean, etc.	giñan gintzazan	gintzazan giñan	giñan gintzazan	ginan id.	ginan gintzazan	ginan	ginan
zu	zintzazan, zintzan, zinean, etc.	ziñan zintzazan	zintzazan ziñan	ziñan zintzazan	zinan id.	zinan zintzazan	zinan	zinan
zuek	zintzazen, zintzen, zineen, etc.	ziñeen zintzazen	zintzazen ziñeen	ziñeen zintzazen	zinien id.	zineen zintzazen	zinien	zinien
haiek	zirean, ziran, etc.	ziran	ziran	ziran	id.	ziran	ziran	ziran

Eguzki: *id*: lehengoaren forma berbera dela esan nahi du...

III. Sinopsia

BALDINTZAZKOAK: NOR: baldintza

	Azkue: 650 or.	J. Intxausti: 102. or.	P. Pujana: 42 or.	Eguzki: 169 or. //// 132. or.				Irazola: 76. or.	BIA: 63. or		Pitarke: 192. or.		
n i	banintz, banitz	banintz	banintz	banintz		id.		banintz	banintz		banintz		
h i	baintz, baitz	baintz			bahintz			baintz	bahintz		bahintz		
h a	balitz	balitz	balitz	balitz		id.		balitz	balitz		balitz		
g u	bagintzaz, bagina, bagine	bagiña	bagintzaz	bagintzaz	bagiña	bagintzaz	bagina	id.	bagintz	bagina	bagina		
z u	bazintzaz, baziña, bazine	baziña	bazintzaz	bazintzaz	baziña	bazintzaz	bazina	id.	bazintz	bazina	bazina		
z u e k	bazintzaze, baziñee, baziñie	baziñee	bazintzaze	bazintzaze	baziñee	bazintzaze	bazinie	id.	bazintze	bazinie	bazinie		
h a i e k	balitzaz, balira	balira	balitzaz	balitzaz	balira	balitzaz	id.	id.	balitzaz	balira	balitzaz	balira	balitzaz

IV. Sinopsia

BALDINTZAZKOAK: NOR: ondorioa, hipotetikoa

	Azkue: 654 or.	J. Intxausti: 104. or.	P. Pujana: 44 or.	Eguzki: 170 or.		Irazola: 76. or.		BIA: 75. or		Pitarke
n i	nintzake, nitzake, ninteke	nintzake	nintzake	nintzake		nintzake		nintzateke		
h i	intzake, itzake, inteke	intzake				intzake		hintzateke		
h a	litzake, liteke	litzake	litzake	litzake		litzake		litzateke		
g u	gintzakez, giñake, gintekez	giñake	gintzakez	giñakez	giñake	gintzakez	gintzakez	ginakez	gintzatekez	
z u	zintzakez, ziñake, zintekes	ziñake	zintzakez	ziñakez	ziñake	zintzakez	zintzakez	zinakez	zintzatekez	
z u e k	zintzakeze, zinakee, zintekeze	ziñakee	zintzakeze	ziñakeze	ziñakee	zintzakeze	zintzakeze	zinakeze	zintzatekeze	
h a i e k	litzakez, litekez	lirake	litzakez	litzakez	lirake	litzakez	litzakez	lirateke	litzatekez	

Eguzki: 132. or.: Nintzateke, Hintzateke, Litzateke, Ginateke (Gintzatekez), Zinateke (Zintzatekez), Zinatekie (Zintzatekeze), Lirateke (Litzatekez)

Pitarke: 193 or.: BIAko berberak, *litzatekez* forma *lirateke* formaren aurrean doalarik.

BALDINTZAZKOAK: NOR: ondorioa, iragana

	Azkue: or.	J. Intxausti: 105. or.	P. Pujana: 46or.	Eguzki: 2: 133. or.	Irazola: 75. or.	BIA: 83. or	Pitarke: 194. or
n i		nintzaken	nintzakean nintzaken	nintzatekean	nintzake(a)n	nintzatekean	nintzatekean
h i		intzaken		hintzatekean	intzaken	hintzatekean	hintzatekean
h a		zitzaken	litzakean litzaken	zitzatekean zatekean	zitzatekean	zitzatekean	zitzatekean
g u		giñaken gintzakezan	gintzakezan	ginatekean		gintzatekezan	gintzatekezan
z u		ziñaken zintzakezan	zintzakezan	zinatekean		zintzatekezan	zintzatekezan
z u e k		ziñakeen zintzakezen	zintzakezen	zintatekien		zintzatekiezan	zintzatekiezan
h a i e k		ziraken	litzakezan	zitzatekezan ziratekean		zitzatekezan	zitzatekezan

AHALERA: NOR: oraina

	Azkue: 776. or.	J. Intxausti: 96. or.	P. Pujana: 30. or.	Eguzki: 132. eta 167. or.	Irazola: 3. or.	BIA: 96. or.	Pitarke: 111 / 211. or.
ni	naiteke	naiteke	naiteke	naiteke	naiteke	naiteke	naiteke
hi	aiteke	aiteke			aiteke	haiteke	haiteke
ha	daiteke	daiteke	daiteke	daiteke	daiteke	daiteke	daiteke
gu	gaitekez	gaitekez	gaitekez	gaitekez	gaitekez	gaitekez	gaitekez
zu	zaitekez	zaitekez	zaitekez	zaitekez	zaitekez	zaitekez	zaitekez
zuek	zaitekeze	zaitekeze	zaitekeze	zaitekeze	zaitekeze	zaitekeze	zaitekeze
haiek	daitekez	daitekez	daitekez	daitekez	daitekez	daitekez	daitekez

Irazola: 5. or.: oharra (6): AHAL ERA-ko ORAIN ALDI honeri atzetik *-n*- bat gehituz gurarizko ahal era sortzen da. (Adizkiak ere jartzen ditu).

AHALERA: NOR: hipotetikoa

	Azkue: 776. or.	J. Intxausti: 106. or.	P. Pujana: 48. or.	Eguzki: 138. eta 168. or.	Irazola: 137. or.	BIA: 100. or.	Pitarke: 228. or.
ni	neinteke, nindeke, nei	neinteke	neinteke	neinteke	neinteke	neinteke	neinteke
hi	einteke, indeke, ¿ei?	einteke			einteke	heinteke	heinteke
ha	leiteke, liteke, lei	leiteke	leiteke	leiteke	leiteke	leiteke	leiteke
gu	geintekez, gindeke, gineiz	geintekez	geintekez	geintekez	geintekez	geintekez	geintekez
zu	zeintekez, zindeke, zineiz	zeintekez	zeintekez	zeintekez	zeintekez	zeintekez	zeintekez
zuek	zeintekez, zindekiei, zineiz	zeintekeze	zeintekeze	zeintekeze	zeintekeze	zeintekeze	zeintekeze
haiek	leitekez, litekiei, leiz	leitekez	leitekez	leitekez	leitekez	leitekez	leitekez

Eguzki (168. or.): **OARRA:** Leena egiteko *-N* atzizkia ezarri. Irugarrenetan asierako *L*- galdu egiten dau: *neintekean, eitekean...*

VIII. Sinopsia

AHALERA: NOR: iragana

	Azkue: 779. or.	J. Intxausti: 97. or.	P. Pujana: 50. or.	Eguzki: 168. or.: Oharra.	Irazola: 137. or.	BIA: 100. or.	Pitarke: 229. or.
ni	neintekean, nindekean, neikean	neintekean	neintekean	neintekean	neintekean	neintekean	neintekean
hi	eintekean, indekean, eikean	eintekean			eintekean	heintekean	heintekean
ha	zeitekean*, liitekean, zeikean	eitekean	zeitekean	eitekean	(z)eitekean	(z)eitekean	(z)eitekean
gu	geintekezan, gindekean, geingizazen	geintekezan	geintekezan	geintekezan	geintekezan	geintekezan	geintekezan
zu	zeintekezan, zindekean, zeingazzen	zeintekezan	zeintekezan	zeintekezan	zeintekezan	zeintekezan	zeintekezan
zuek	zeintekezzen, zindekien, zeingiezenz	zeintekezzen	zeintekezzen	zeintekezzen	zeintekezzen	zeintekezzen	zeintekezzen
haiek	zeitekezan*, litekien, zeikiazen	eitekezan	zeitekezan	eitekezan	(z)eitekezan	(z)eitekezan	(z)eitekezan

Azkue: * = Algnos: *leitekean* y *leitekezan*.

IX. Sinopsia

SUBJUNTIBOA: NOR: oraina

	Azkue: 674?/671? or.	J. Intxausti: 98. or.	P. Pujana: 26. or.	Eguzki: 165. or.	Irazola: 3. or.	BIA: 87 0.	Pitarke: 112 or.
ni	naiten	nadin naitean	naiten nadin	naiten naiten nadin	naiten naiten nadin	naiten nadin	nadin naiten
hi	aiten	adin aitean		aiten adin	haiten hadin	haiten hadin	hadin haiten
ha	daiten	daitean	daiten dadin	daiten daiten dadin	daiten dadin	daiten dadin	dedin daiten
gu	gaitezan	gaitezan	gaitezan gaizan	gaitezan gaitezan gadizan	gaitezan	gaitezan	gadizan gaitezan
zu	zaitezan	zaitezan	zaitezan zaizan	zaitezan zaitezan zadizan	zaitezan	zaitezan	zadizan zaitezan
zuek	zaitezen	zaitezen	zaitezen zaizen	zaitezen zaitezen zadizen	zaitezen	zaitezen	zadizen zaitezen
haiek	daitezan	daitezan	daitezan daizan	daitezan daitezan dadizan	daitezan	daitezan	dadizan daitezan

Pitarke: ADITZ IV: ADITZ KONPARATUA, 110. or. eta ADITZ KONPARATUA, 210. or.: naiten/nadin, haiten/hadin, daiten/dedin, gaitezan, zaitezan, zaitezen, daitezan.

X. Sinopsia

SUBJUNTIBOA: NOR: lehena

	Azkue: 674??. or.	J. Intxausti: 99. or.	P. Pujana: 38. or.	Eguzki: 166. or.	Irazola: 137. or.	BIA: 92. or.	Pitarke: -227-. or.
ni	nendin	neintean	neinten nendin	neinten	neintean nendin	neinten nendin	neinten nendin
hi	endin	eintean			eintean endin	heinten hendin	heinten hendin
ha	zedin	eitean	eiten zedin	eiten	(z)eiten zedin	eiten zedin	eiten zedin
gu	gendizan	geintezan	geintezan gendizan	geintezan	geintezan	geintezan	geintezan
zu	zendizan	zeintezan	zeintezan zendizan	zeintezan	zeintezan	zeintezan	zeintezan
zuek	zendizen	zeintezzen	zeintezzen zendizen	zeintezzen	zeintezzen	zeintezzen	zeintezzen
haiek	zedizen	eitezan	eitezan zedizan	eitezan	(z)eitezan	eitezan zeitezan	eitezan zeitezan

XI. Sinopsia

INPERATIBOA: NOR: oraina

	Azkue: 662. or.	J. Intxausti: 100. or.	P. Pujana: 28. or.	Eguzki: 164. or.	Irazola: 3. or.	BIA: 107. or.	Pitarke: 209. or.
ni	nadin, naitean		nadin (naiten)			nadin	
hi	adi, aite	adi aite			aite	hadi	hadi
ha	bedi, daiteala	beite bedi	beite	bedi bedi beite	bedi bedi beite	bedi dedila, daitela	bedi
gu	gaizan, gaitezan		gaitezan gaizan			gaitezan	
zu	zaiz, zaitez	zaitez zaitez	zaiz	zaitez zaitez	zaitez zaitez	zaitez	zaitez
zuek	zaize, zaiteze	zaiteze zaiteze	zaize	zaiteze zaiteze	zaiteze zaiteze	zaiteze	zaiteze
haiek	bediz, daitezala	beitez bediz	beitez	bediz beitez bediz	beitez beitez bediz	beitez daitezala	beitez

Pitarke: 110. or.: Aginte era: O.A. Aginte era: G.A.: Bizkaieraz baino ez da erabili izan: haiteke/hadike, bedike, zaitkez, zaitkeze, beitekez.

XII. Sinopsia

AHALEZKO BALDINTZA: NOR: hurbila

	Azkue: 679. or.	J. Intxausti: 101. or.	P. Pujana: 34. or.	Eguzki:	Irazola: 3. or.	BIA	Pitarke: 111 or.	Pitarke: 212 or.
ni	banadi	banadi banaite	banadi banaite		banadi banaite		banadi banaite	banaite banadi
hi	baadi	baadi			baadi baaita		bahadi bahaite	bahaite bahadi
ha	badadi	badaite	badadi badaite		badadi badaite		badedi badaite	badaite badedi
gu	bagaiz	bagaitez	bagadiz bagaitez		bagadiz bagaitez		bagaitez	bagaitez
zu	bazaiz	bazaitez	bazadiz bazaitez		bazaitez bazadiz		bazaitez	bazaitez
zuek	bazaize	bazaiteze	bazadize bazaiteze		bazaiteze bazadize		bazaiteze	bazaiteze
haiek	badaiz	badaitez	badadiz badaitez		badaitez badadiz		badaitez	badaitez

XIII. Sinopsia

AHALEZKO BALDINTZA: NOR: urruna

	Azkue: 680. or.	J. Intxausti: 103. or.	P. Pujana: 40. or.		Eguzki	Irazola: 137. or.		BIA	Pitarke: -230- or.		
n i	banendi	baneinte	baneinte	banendi	baneinteke		baneinte	banendi		baneinte	banendi
h i	baendi	baeinte			baeinteke		baeinte	baendi		baeinte	bahendi
h a	baledi	baleite	baleite	baledi	baleiteke		baleite	baledi		baleite	baledi
g u	bagendiz	bageintez	bageintez	bagendiz	bageintekez		bageintez	bagendiz		bageintez	
z u	bazendiz	bazeintez	bazeintez	bazendiz	bazeintekez		bazeintez	bazendiz		bazeintez	
z u e k	bazendize	bazeinteze	bazeinteze	bazendize	bazeintekeze		bazeinteze	bazendize		bazeinteze	
h a i e k	balediz, baleiz	baleitez	baleitez	balediz	baleitekez		baleitez	balediz		baleitez	

Pujana: Hirugarren adizkiak Azkueren 781-782. orrialdeetakoak dira, hikako forma eta guzti. Jakina, Pujanak berak ez dakar hikako forma hori.

XIV. Sinopsia

INDIKATIBOA: NOR-NORI: oraina

	Azkue: 638. or.	J. Intxausti: 94. or.	P. Pujana: 24. or.	Eguzki: 159. or. / 59-60. or.		Irazola: 13. or.		BIA: 24. or.	Pitarke: 181. or.
ni-hari	nakio, naiako	natxako	naiako natxako	naiako	id.	naiako		natxako	natxako
hi-hari	akio, aiako	atxako			hatxako	(aiako)		hatxako	hatxako
hura-hari	dakio, jako	jako	jako	jako	id.	jako	dako	jako	jako
gu-hari	gakioz, gaiakoz	gatxakoz	gaiakoz gatxakoz	gaiakoz	id.	gaiakoz		gatxakoz	gatxakoz
zu-hari	zakioz, zaiakoz	zatxakoz	zaiakoz zatxakoz	zaiakoz	id.	zaiakoz		zatxakoz	zatxakoz

zuek-hari	zakioze, zaiakoze	zatxakoze	zaiakoze	zatxakoze	zaiakoze	id.	zaiakoze	zatxakoze	zatxakoze
haiek-hari	dakioz, jakoz	jakoz	jakoz	jakoz	jakoz	id.	jakoz	dakoz	jakoz
ni-haiei	nakioe, naiake	natxake	naiake	natxake	naiake	id.	naiake	natxake	natxake
hi-haiei	akioe, aiake	atxake			haiake	(aiake)	hatxake	hatxake	hatxake
hura-haiei	dakioe, jake	jake	jake	jake	jake	id.	jake	dake	jake
gu-haiei	gakioez, gaiakez	gatxakez	gaiakez	gatxakez	gaiakez	id.	gaiakez	gatxakez	gatxakez
zu-haiei	zakioez, zaiakez	zatxakez	zaiakez	zatxakez	zaiakez	id.	zaiakez	zatxakez	zatxakez
zuek-haiei	zakioeze, zaiakeze	zatxakeze	zaiakeze	zatxakeze	zaiakeze	id.	zaiakeze	zatxakeze	zatxakeze
haiek-haiei	dakioez, jakez	jakez	jakez	jakez	jakez	id.	jakez	dakez	jakez
hi-niri	akit, aiat	atxat			haiat	(aiat)	hatxat	hatxat	hatxat
hura-niri	dakit, jat	jat	jat	jat	jat	id.	jat	dat	jat
zu-niri	zakidaz, zatxataz	zatxataz	zaiataz	zatxataz	zaiataz	id.		zatxataz	zatxataz
zuek-niri	zakidaze, zatxataze	zatxataze	zaiataze	zatxataze	zaiataze	id.		zatxataze	zatxataze
haiek-niri	dakidaz, jataz	jataz	jataz	jataz	jataz	id.	jataz	dataz	jataz
ni-hiri	nakik, natxak nakin, natxan	natxak natxan			naiak naiana(a)	naiak naiana	natxak natxan(a)	natxak natxan(a)	natxak natxan(a)
hura-hiri	dakik, jak dakin, jan	jak jan			jak jan(a)	jak jana	dak dana	jak jan(a)	jak jan(a)
gu-hiri	gakizak, gaiazak gakinaz, gaianaz	gatxazak gatxazan			gaiazak gaiazan(a)	gaiazak gaiazana	gatxazak gatxazan(a)	gatxazak gatxazan(a)	gatxazak gatxazan(a)
haiek-hiri	dakizak, jatazak dakinaz, jaanaz	jazak jazan			jazak jazan(a)	jazak jazana	dazak dazana	jazak jazan(a)	jazak jazan(a)
hi-guri	akigu, aiaku	atxaku			haiaku	(aiaku)	hatxaku	hatxaku	hatxaku
hura-guri	dakigu, jaku	jaku	jaku	jaku	jaku	id.	jaku	daku	jaku
zu-guri	zakiguz, zaiakuz	zatxakuz	zaiakuz	zatxakuz	zaiakuz	id.	zaiakuz	zatxakuz	zatxakuz
zuek-guri	zakiguze, zaiakuze	zatxakuze	zaiakuze	zatxakuze	zaiakuze	id.	zaiakuze	zatxakuze	zatxakuze
haiek-guri	dakiguz, jakuz	jakuz	jakuz	jakuz	jakuz	id.	id.	dakuz	jakuz
ni-zuri	nakizu, naiatzu	natxatzu	naiatzu	natxatzu	naiatzu	id.	naiatzu	natxatzu	natxatzu
hura-zuri	dakizu, jatzu	jatzu	jatzu	jatzu	jatzu	id.	id.	datzu	jatzu
gu-zuri	gakizuz, gaiatzuz	gatxatzuz	gaiatzuz	gatxatzuz	gaiatzuz	id.	gaiatzuz	gatxatzuz	gatxatzuz
haiek-zuri	dakizuz, jatzuz	jatzuz	jatzuz	jatzuz	jatzuz	id.	jatzuz	datzuz	jatzuz
ni-zuei	nakizue, naiatzue	natxatzue	naiatzue	natxatzue	naiatzue	id.	naiatzue	natxatzue	natxatzue

hura-zuei	dakizue, jatzue	jatzue	jatzue	jatzue	id.	id.	datzue	jatzue	jatzue
gu-zuei	gakizue, gaiatzue	gatxatzue	gaiatzue, gatxatzue	gaiatzue	id.	gaiatzue	gatxatzue	gatxatzue	gatxatzue
haiek-zuei	dakizuez, jatzuez	jatzuez	jatzuez	jatzuez	id.	id.	datzuez	jatzuez	jatzuez

Pujana: bigarren adizkiak Zamarriparen Gramatica vasca-tik hartutakoak direla dio. **Eguzki:** *id.*: lehengoaren (albokoaren) adizkera berbera dela esan nahi du.

Irazola: (3) oharra: 3. pertsonetako adizkera honeik forma oso regularizat daukaguz (*dat, datzu, dako datzue, dake...*). Eta, nik neutara zutabeen jarri ditut eurok.

(4) oharra: Dena den, kontuan hartu itzazu bizkaieraz sendo-sendo bizi diran forma hauek: “dat, datzu, dako, datzue, dake, zatxataz, zatxakuz” etab.

XV. Sinopsia

INDIKATIBOA: NOR-NORI: lehen

	Azkie: 646. or.	J. Intxausti: 95. or.	P. Pujana: 36 or.	Eguzki: 163. or. // 94. or.	Irazola: 85. or.	BIA: 45. or.	Pitarke: 191. or.
ni-hari	nintzakion	nintxakon	niniakon nintxakon	nintzakon	nintxakon	nintzakon	nintxakon
hi-hari	intzakion	intxakon			hintzakon	intzakon	hintzakon
hura-hari	jakon, ekion	jakon	jakon	jakon	jakon	jakon	jakon
gu-hari	gintzakiozan	gintxakozan	giniakozan gintxakozan	gintzakozan	gintxakozan	gintzakozan	gintxakozan
zu-hari	zintzakiozan	zintxakozan	ziniakozan zintxakozan	zintzakozan	zintxakozan	zintzakozan	zintxakozan
zuek-hari	zintzakiozen	zintxakozen	ziniakozen zintxakozen	zintzakozen	zintxakozen	zintzakozen	zintxakozen
haiek-hari	jakozan, ekiozan	jakozan	jakozan	jakozan	jakozan	jakozan	jakozan
ni-haiei	nintzakioen	nintxaken	niniaken nintxaken	nintzaken		nintzaken	nintxaken
hi-haiei	intzakioen	intxaken			hintzaken	intzaken	hintzaken
hura-haiei	jaken, ekioen	jaken	jaken	jaken	jaken	jaken	jaken
gu-haiei	gintzakeozan	gintxakezan	giniakezan gintxakezan	gintzakezan	gintxakezan	gintzakezan	gintxakezan
zu-haiei	zintzakeozan	zintxakezan	ziniakezan zintxakezan	zintzakezan	zintxakezan	zintzakezan	zintxakezan
zuek-haiei	zintzakeozan	zintxakezen	ziniakezen zintxakezen	zintzakezen	zintxakezen	zintzakezen	zintxakezen
haiek-haiei	jakezan, ekioezan	jakezan	jakezan	jakezan	jakezan	jakezan	jakezan
hi-niri	intzakidan	intxatan			hintzatan	intzatan	hintzatan
hura-niri	jatan, ekidan	jatan	jatan	jatan	jatan	jatan	jatan
zu-niri	zintzakidazan	zintxatazan	zinizatazan zintxatazan	zintzatazan	zintxatazan	zintzatazan	zintxatazan
zuek-niri	zintzakidazen	zintxatazen	ziniatazen zintxatazen	zintzatazen	zintxatazen	zintzatazen	zintxatazen
haiek-niri	jatazan, ekidazan	jatazan	jatazan	jatazan	jatazan	jatazan	jatazan
ni-hiri	nintzakian nintzakinan	nintxaan nintxanan			nintzaan nintzanan	nintzaan nintxanan	nintxaan nintxanan

nura-hiri	jaan, ekan janan, ekinan	jaan janan			jakan janan	jakan janan	jakan janan	jakan janan
gu-hiri	gintzakiazan gintzakinazan	gintxaaazan gintxanazan		n	gintzaazan gintzanazan	gintzaazan gintzazanan	gintxakazan gintxakazanan	gintxakazan gintxakazanan
haiek-hiri	jaazan, ekiazan janazan, ekinazan	jaazan janazan			jakazan janazan	jaazan janazan	jaazan janazan	jaazan janazan
hi-guri	intzakigun	intxakun			hintzakun	intzakun	hintzakun	hintzakun
hura-guri	jakun, ekigun	jakun	jakun	jakun	jakun	jakun	jakun	jakun
zu-guri	zintzakiguzan	zintxakuzan	ziniakuzan	zintxakuzan	zintzakuzan	zintxakuzan	zintzakuzan	zintxakuzan
zuek-guri	zintzakiguzen	zintxakuzen	ziniakuzen	zintxakuzen	zintzakuzen	zintxakuzen	zintzakuzen	zintxakuezan
haiek-guri	jakuzan, ekiguzan	jakuzan	jakuzan		jakuzan	jakuzan	jakuzan	jakuzan
ni-zuri	nintzakizun	nintxatzun	niniatzun	nintxatzun	nintzatzun	nintxatzun	nintzatzun	nintxatzun
hura-zuri	jatzun, ekizun	jatzun	jatzun		jatzun	jatzun	jatzun	jatzun
gu-zuri	gintzakizuzan	gintxatzuzan	giniatzuzan	gintxatzuzan	gintzatzuzan	gintxatzuzan	gintzatzuzan	gintxatzuzan
haiek-zuri	jatzuzan, ekizuzan	jatzuzan	jatzuzan		jatzuzan	jatzuzan	jatzuzan	jatzuzan
ni-zuei	nintzakizuen	nintxatzuen	niniatzuen	nintxatzuen	nintzatzuen	nintxatzuen	nintzatzuen	nintxatzuen
hura-zuei	jatzuen, ekizuen	jatzuen	jatzuen		jatzuen	jatzuen	jatzuen	jatzuen
gu-zuei	gintzakizuezan	gintxatzuezan	giniatzuezan	gintxatzuezan	gintzatzuezan	gintxatzuezan	gintzatzuezan	gintxatzuezan
haiek-zuei	jatzuezan, ekizuezan	jatzuezan	jatzuezan		jatzuezan	jatzuezan	jatzuezan	jatzuezan

Pujana: Bigarren adizkiak Zamarriparen 'Gramatica vasca'-tik hartutakoak direla dio. **Eguzki:** Berak niri igorriak: Haiek-hiri: *jaazan/janazan*.

XVI. Sinopsia

BALDINTZAZKOAK: NOR-NORI: baldintza

	Azkue: 652. or.	J. Intxausti: 102. or.	P. Pujana: 42 or.		Eguzki: 169. or. /// 138: 2.: or.		Irazola: 90. or.	BIA: 64. or.	Pitarke: 192 or.
ni-hari	banintzakio	banintxako	banintzakio	banintxako	banintzakio	banintxako	banintzakio	banintxako	banintxako
hi-hari	baintzakio	baintxako				bahintxako	bahintxako	bahintxako	bahintxako
hura-hari	balitzakio	balitxako	balitzakio	balitxako	balitzakio	balitxako	balitzakio	balitxako	balitxako
gu-hari	bagintzakioz	bagintxakoz	bagintzakioz	bagintxakoz	bagintzakioz	bagintxakoz	bagintzakioz	bagintxakoz	bagintxakoz
zu-hari	bazintzakioz	bazintxakoz	bazintzakioz	bazintxakoz	bazintzakioz	bazintxakoz	bazintzakioz	bazintxakoz	bazintxakoz
zuek-hari	bazintzakioze	bazintxakoze	bazintzakioze	bazintxakoze	bazintzakioze	bazintxakoze	bazintzakioze	bazintxakoze	bazintxakoze
haiek-hari	balitzakioz	balitxakoz	balitzakioz	balitxakoz	balitzakioz	balitxakoz	balitzakioz	balitxakoz	balitxakoz
ni-haiei	banintzakioe	banintxake	banintzake	banintxake	banintzakioe	banintxake	banintzake	banintxake	banintxake
hi-haiei	baintzakioe	baintxake				bahintxake	bahintxake	bahintxake	bahintxake

hura-haiei	balitzakioe	balitxake	balitzakie	balitxake	balitzakioe	balitxake	balitzakie	balitxake	balitxake
gu-haiei	bagintzakioez	bagintxakez	bagintzakiez	bagintxakez	bagintzakioez	bagintxakez	bagintzakiez	bagintxakez	bagintxakez
zu-haiei	bazintzakioez	bazintxakez	bazintzakiez	bazintxakez	bazintzakioez	bazintxakez	bazintzakiez	bazintxakez	bazintxakez
zuek-haiei	bazintzakioeze	bazintxakeze	bazintzakieze	bazintxakeze	bazintzakioeze	bazintxakeze	bazintzakieze	bazintxakeze	bazintxakeze
haiek-haiei	balitzakioez	balitxakez	balitzakiez	balitxakez	balitzakioez	balitxakez	balitzakiez	balitxakez	balitxakez
hi-niri	baintzakit	baintxat				bahintxat	bahintzakit	bahintxat	bahintxat
hura-niri	balitzakit	balitxat	balitzakit	balitxat	balitzakit	balitxat	balitzakit	balitxat	balitxat
zu-niri	bazintzakidaz	bazintxataz	bazintzakidaz	bazintxataz	bazintzakidaz	bazintxataz	bazintzakidaz	bazintxataz	bazintxataz
zuek-niri	bazintzakidaze	bazintxataze	bazintzakidaze	bazintxataze	bazintzakidaze	bazintxataze	bazintzakidaze	bazintxataze	bazintxataze
haiek-niri	balitzakidaz	balitxataz	balitzakidaz	balitxataz	balitzakidaz	balitxataz	balitzakidaz	balitxataz	balitxataz
ni-hiri	banintzakik banintzakin	banintxak banintxan				banintxaa banintxana	banintzakik banintzakin	banintxa banintxana	banintxa banintxana
hura-hiri	balitzakik balitzakin	balitxak balitxan				balitxaa balitxana	balitzakik balitzakin	balitxa balitxana	balitxa balitxana
gu-hiri	bagintzakizak bagintzakinaz	bagintxazak bagintxazan				bagintxaa bagintxanaz	bagintzazak bagintzanaz	bagintxa bagintxana	bagintxaa bagintxanaz
haiek-hiri	balitzakizak balitzakinaz	balitxazak balitxazan				balitxaa balitxanaz	balitxazak balitxazan	balitxaa balitxanaz	balitxaa balitxanaz
hi-guri	bahintzakigu	bahintxaku				bahintxaku	baintzakigu	bahintxaku	bahintxaku
hura-guri	balitzakigu	balitxaku	balitzakigu	balitxaku	balitzakigu	balitxaku	balitzakigu	balitxaku	balitxaku
zu-guri	bazintzakiguz	bazintxakuz	bazintzakiguz	bazintxakuz	bazintzakiguz	bazintxakuz	bazintzakiguz	bazintxakuz	bazintxakuz
zuek-guri	bazintzakiguze	bazintxakuze	bazintzakiguze	bazintxakuze	bazintzakiguze	bazintxakuze	bazintzakiguze	bazintxakuze	bazintxakuze
haiek-guri	balitzakiguz	balitxakuz	balitzakiguz	balitxakuz	balitzakiguz	balitxakuz	balitzakiguz	balitxakuz	balitxakuz
ni-zuri	banintzakizu	banintxatzu	banintzakizu	banintxatzu	banintzakizu	banintxatzu	banintzakizu	banintxatzu	banintxatzu
hura-zuri	balitzakizu	balitxatzu	balitzakizu	balitxatzu	balitzakizu	balitxatzu	balitzakizu	balitxatzu	balitxatzu
gu-zuri	bagintzakizuz	bagintxatzuz	bagintzakizuz	bagintxatzuz	bagintzakizuz	bagintxatzuz	bagintzakizuz	bagintxatzuz	bagintxatzuz
haiek-zuri	balitzakizuz	balitxatzuz	balitzakizuz	balitxatzuz	balitzatzuz	balitxatzuz	balitzakizuz	balitxatzuz	balitxatzuz
ni-zuei	banintzakizue	banintxatzue	banintzakizue	banintxatzue	banintzakizue	banintxatzue	banintzakizue	banintxatzue	banintxatzue
hura-zuei	balitzakizue	balitxatzue	balitzakizue	balitxatzue	balitzakizue	balitxatzue	balitzakizue	balitxatzue	balitxatzue
gu-zuei	bagintzakizueez	bagintxatzueez	bagintzakizueez	bagintxatzueez	bagintzakizueez	bagintxatzueez	bagintzakizueez	bagintxatzueez	bagintxatzueez
haiek-zuei	balitzakizueez	balitxatzueez	balitzakizueez	balitxatzueez	balitzakizueez	balitxatzueez	balitzakizueez	balitxatzueez	balitxatzueez

Ohargarria: Morf. 658-1: *aserratuko ezpazintxataz* (Peru Abarka) decimos HOY *aserratuko ezpazintzakidaz*. Eta GAURKO joera, atzera bere, *bazintxataz* da...

Eguzki: 142 or.: erabilera bikoitz bat daukagu, ...: BALITXAKU ? BALITZAKIGU; BALITXATZU ? BALITZAKIZU... (Berak niri bere eskuz idatzita igorritakoak: *banintxak/*, *banintxana*, *balitxak/balitxana*, *bagintxazak/bagintxazana*, *balitxazak/balitxazana*.)

XVII. Sinopsia

BALDINTZAZKOAK: NOR-NORI: ondorioa, hipotetikoa

	Azkue: 657. or.	J. Intxausti: 104. or.	P. Pujana: 44 or.	Eguzki: 170. or. // 138. or.		Irazola: 87. or.	BIA: 76. or.	Pitarke: 193. or.
ni-hari	nintzakio	nintzakio	nintzakio	nintzakio	id.	nintzakio	nintzakio	nintzakio
hi-hari	intzakio	intzakio			hintzakio	intzakio	hintzakio	hintzakio
hura-hari	litzakio	litzakio	litzakio	litzakio	id.	litzakio	litzakio	litzakio
gu-hari	gintzakioz	gintzakioz	gintzakioz	gintzakioz	id.	gintzakioz	gintzakioz	gintzakioz
zu-hari	zintzakioz	zintzakioz	zintzakioz	zintzakioz	id.	zintzakioz	zintzakioz	zintzakioz
zuek-hari	zintzakioze	zintzakioze	zintzakioze	zintzakioze	id.	zintzakioze	zintzakioze	zintzakioze
haiek-hari	litzakioz	litzakioz	litzakioz	litzakioz	id.	litzakioz	litzakioz	litzakioz
ni-haiei	nintzakioe	nintzakioe	nintzakie	nintzakie	id.	nintzakie	nintzakie	nintzakie
hi-haiei	intzakioe	intzakioe			hintzakie	intzakie	hintzakie	hintzakie
hura-haiei	litzakioe	litzakioe	litzakie	litzakie	id.	litzakie	litzakie	litzakie
gu-haiei	gintzakioez	gintzakioez	gintzakiez	gintzakiez	id.	gintzakiez	gintzakiez	gintzakiez
zu-haiei	zintzakioez	zintzakioez	zintzakiez	zintzakiez	id.	zintzakiez	zintzakiez	zintzakiez
zuek-haiei	zintzakioeze	zintzakioeze	zintzakieze	zintzakieze	id.	zintzakieze	zintzakieze	zintzakieze
haiek-haiei	litzakioez	litzakioez	litzakiez	litzakiez	id.	litzakiez	litza kiez	litzakiez
hi-niri	intzakik	intzakik			hintzakit	intzakit	hintzakit	hintzakit
hura-niri	litzakit	litzakit	litzakit	litzakit	id.	litzakit	litzakit	litzakit
zu-niri	zintzakidaz	zintzakidaz	zintzakidaz	zintzakidaz	id.	zintzakidaz	zintzakidaz	zintzakidaz
zuek-niri	zintzakidaze	zintzakidaze	zintzakidaze	zintzakidaze	id.	zintzakidaze	zintzakidaze	zintzakidaze
haiek-niri	litzakidaz	litzakidaz	litzakidaz	litzakidaz	id.	litzakidaz	litzakidaz	litzakidaz
ni-hiri	nintzakik nintzakin	nintza kik nintzakin			nintzakia nintzakina	nintzakik nintzakin	nintzakik nintzakin(a)	nintzakik nintzakin(a)
hura-hiri	litzakik litzakin	litzakik litzakin			litzakia litzakina	litzakik litzakin	litzakik litzakin(a)	litzakik litzakin(a)
gu-hiri	gintzakizak gintzakinaz	gintzakizak gintzakinaz			gintzakiaz gintzakinaz	gintzakizak	gintzakizak gintzakinaz(a)	gintzakizak gintzakinaz(a)
haiek-hiri	litzakizak litzakinaz	litzakizak litzakinaz			litzakiaz litzakinaz	litzakizak litzakinaz	litzakizak litzakinaz(a)	litzakizak litzakinaz(a)

hi-guri	intzakigu	intzakigu			hintzakigu	intzakigu	hintzakigu	hintzakigu
hura-guri	litzakigu	litzakigu	litzakigu	litzakigu	id.	litzakigu	litzakigu	litzakigu
zu-guri	zintzakiguz	zintzakiguz	zintzakiguz	zintzakiguz	id.	zintzakiguz	zintzakiguz	zintzakiguz
zuek-guri	zintzakiguze	zintzakiguze	zintzakiguze	zintzakiguze	id.	zintzakiguze	zintzakiguze	zintzakiguze
haiek-guri	litzakiguz	litzakiguz	litzakiguz	litzakiguz	id.	litzakiguz	litzakiguz	litzakiguz
ni-zuri	nintzakizu	nintzakizu	nintzakizu	nintzakizu	id.	nintzakizu	nintzakizu	nintzakizu
hura-zuri	litzakizu	litzakizu	litzakizu	litzakizu	id.	litzakizu	litzakizu	litzakizu
gu-zuri	gintzakizuz	gintzakizuz	gintzakizuz	gintzakizuz	id.	gintzakizuz	gintzakizuz	gintzakizuz
haiek-zuri	litzakizuz	litzakizuz	litzakizuz	litzakizuz	id.	litzakizuz	litzakizuz	litzakizuz
ni-zuei	nintzakizue	nintzakizue	nintzakizu	nintzakizue	id.	nintzakizue	nintzakizue	nintzakizue
hura-zuei	litzakizue	litzakizue	litzakizu	litzakizue	id.	litzakizue	litzakizue	litzakizue
gu-zuei	gintzakizuez	gintzakizuez	gintzakizuz	gintzakizuez	id.	gintzakizuez	gintzakizuez	gintzakizuez
haiek-zuei	litzakizuez	litzakizuez	litzakizuz	litzakizuez	id.	litzakizuez	litzakizuez	litzakizuez

Irazola: gu-hiri: fe meninoa ez dator, baina 88. orrialdeko (3) oharraren arabera, *gintzakizan* dela esan genezake.

XVIII. Sinopsia

BALDINTZAZKOAK: NOR-NORI: ondorioa, iragana

	Azkue:	J. Intxausti: 105. or.	P. Pujana: 46 or.	Eguzki:	Irazola:	BIA:	Pitarke: 74, -194-. or.
ni-hari		nintzakion	nintzakion				nintzakion
hi-hari		intzakion					hintzakion
hura-hari		zitzakion	litzakion				zitzakion
gu-hari		gintzakiozan	gintzakiozan				gintzakiozan
zu-hari		zintzakiozan	zintzakiozan				zintzakiozan
zuek-hari		zintzakiozen	zintzakiozen				zintzakiozen
haiek-hari		zitzakiozan	litzakiozan				zitzakiozan
ni-haiei		nintzakioen	nintzakien				nintzakien
hi-haiei		intzakioen					hintzakien
hura-haiei		zitzakioen	litzakien				zitzakien
gu-haiei		gintzakioezan	gintzakiezan				gintzakiezan
zu-haiei		zintzakioezan	zintzakiezan				zintzakiezan
zuek-haiei		zintzakioezen	zintzakiezen				zintzakiezen

haiek- haiei		zitzakioezan	litzakiezan				zitzakiezan
hi-niri		intzakidan					hintzakidan
